

IRAKASKUNTZA-GIDA

2024/25

Ikastegia

135 - Hezkuntza eta Kirol Fakultatea. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzi

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GDEPOR10 - Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua

Ikastaroa

2. maila

IRAKASGAIA

25797 - Kirol Jolasak

ECTS kredituak:

6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Ikasgai honek haurren tradiziozko kirol joko-jolasak aztertzen ditu, giza testuinguru berezitasunak eta barne logikako ezaugarrien arteko loturak azpimarratuz. Horretarako, Euskal Herriko tradiziozko kirol joko-jolasen errepertorioa hartzen du ereduaz.

Kirol jolasak ikasgaiak ekintza motorraren analisia eta praktika ditu ardatz; horrela, oso lotuta dago Praxiologia motorra ikasgaiarekin eta graduan ematen diren kirol eta ikasgai motor guztiekin. Horretaz gain, heziketaren dimentsioa Hezkuntza irakasgaiaren ikusiko du ikasleak.

Titulazioan oso irakasgai funtsezkoa da, ez bakarrik jarduera fisikoetako edozein interbentzioaren arlotan eskaintzen dituen baliabideengatik, baizik eta eskaintzen dituen giza egituren aberastasunengatik eta sustatzen dituen efektu eta egoera pedagogiko berezitasunengatik.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

IRAKASGAIAREN GAITASUN ESPEZIFIKOAK

G1.Euskal Herriko haurren tradiziozko kirol joko-jolas korpus bat ezagutu, euren estrategiak praktikan azalera ekarri, eta barne logikaren elementuak aztertuz(jokalariak espazioarekin, besteekin, denborarekin eta objektuekin mantentzen dituen erlazioak).

Ikasketa Emaitzak: 1-Ikasleek gaitasun motor maila bat lortuko dute kirol joko-jolasetan, motor egituren ezagupen praktikoak eta inplikaturak dauden gorputz teknikak oinarrituta hartuz.

2-Ikasleak gai izango dira haur joko-jolas tradizionalak ondo deskribatzeko eta honekin batera fixxero bat egiteko gorputz tekniken ezagupenak, egiturak eta horien funtzioak hainbat arlo pedagogikotan oinarrituta hartuz.

G2.Kirol joko-jolasen eta kulturaren arteko harremana azaldu, Euskal Herriko testuinguruan oinarrituz, hau da, etxea ardatz moduan hartuz eta generoa, jaiak, apustuak eta animaliekiko harremanen ezaugarriak azpimarratuz.

Ikasketa Emaitzak: Ikasleak gai izango dira joko-jolasen barne egitura eta Euskal Herriaren giza testuinguruaren artean dagoen harremana ahoz eta idatziz azaltzeko.

ZEHARKAKO GAITASUNAK

G020. Egoera berrietara egokitze, arazoak konpontzeko eta modu autonomoan ikasteko gaitasunak garatzea.

Ikasketa Emaitzak: Ikasleek kirol joko-jolas kopuru zabal batean parte hartuko dute, araudiak ulertuko dituzte eta, zehaztasunarekin eta testuingurua errespetatuz, estrategi motorrak azaleratu dituzte.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

- 1.Etnomotrizitatea. Gazteen kirol joko-jolasak eta kultur fisikoa Euskal Herrian.
- 2.Eremu etnomotorra. Ziurgabetasun espazioa eta kultur pentsamendua. Joko-jolasak ziurak eta ziurgabeak.
- 3.Harreman etnomotorrak. Parte-hartzaileen arteko giza-harremanak eta giza-rolak. Joko-jolasak psikomotorrak eta soziomotorrak.
- 4.Etnomotrizitatea eta denbora. Kultur denbora eta garaipen ludikoa. Joko-jolas gareildunak eta garailegabeak.
- 5.Materiazko kultur ludikoa. Joko-jolasak tresnadunak eta tresnagabedunak.
- 6.Kirol joko-jolasen kultur esanahia. Jokoa eta jolasa, jokabide ludikoaren esanahia, giza-jokabidearen eredua.
7. Joko-jolasak eta emozioak.

METODOLOGIA

Ikasgaiaren edukiak modu honetan garatuko dira:

Saio magistralak: Saio teorikoak PPT aurkezpenekin, non azalpenez gain, irakurketak, eztabaidak eta ariketak egingo diren kultura eta kirol joko-jolasekin lotzeko. Saio magistralak ikasgelan egingo dira.

Saio praktikoak: kirol joko-jolasak jolasteaz gain, joko-jolas horien deskribapen literarioa, barne logika eta ilustrazio grafikoa landuko da. Saio praktikoak Fakultateko polikiroldegian eta kanpoko errezeretan egingo dira. Ikasgai honen ezaugarriak direla eta, praktikan ezinbestekoa da lankidetzako jarrera, interesa eta batak bestearekiko begirunez parte hartzea. Honekin lotuta, zeharkako gaitasuna G020 saio praktikan landuko da.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	15		45						
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	22,5		67,5						

Legenda:

M: Magistrala

GL: Laborategiko p.

TA: Tailerra

S: Mintegia

GO: Ordenagailuko p.

TI: Tailer Ind.

GA: Gelako p.

GCL: P. klinikoak

GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 30
- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 70

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

G020 Zeharkako gaitasuna eta gaitasun espezifikoak lotuta ebaluatuko dira modu honetan:

1. ETENGABEKO EBALUAZIOA:

1.1. Balorazio PRAKTIKOA (notaren %70): Eskatzen du:

1.1.1.PRAKTIKA SOZIOMOTORRA (nota osoaren %20): klasean egindako Kirol joko-jolasetan ikasleek gaitasun sozomotor maila egokia erakutsi behar dute, beti ere estrategia motorrak zuhertasunez azaleratuz eta testuingurua errespetatuz: espazioa, jolaskideak, denbora eta objektuak.

1.1.2. FROGA PRAKTIKO PSIKOMOTORRA (nota osoaren %20): ikasleek, joko malabarren garapenean zentratuta, gaitasun psikomotor maila egokia erakutsiko dute.

1.1.3. IDATZITAKO ARIKETA PRAKTIKOA (nota osoaren %30): ikasleek kirol joko-jolasen deskribapen literarioa, analisia eta ilustrazioak egiteko gaitasuna erakutsiko dute.

Praktika horietako balorazioa eta kalifikazio irizpideak eguneratutako errubriketan oinarrituko dira; horiek E-gela plataforman argitaratuta.

1.2. Balorazio TEORIKOA (notaren %30): IDATZITAKO ARIKETAK, Euskal Herriko kirol joko-jolasen esanahi kulturala aztertzeke.

Ikasleak bai zati praktikoa bai zati teorikoa gainditu behar du azken nota osatzeko. Etengabeko ebaluazioa jarraitzen duen ikasle batek ikasgaiaren zati bat gainditzen ez badu (hau da, teorikoan 3 puntutik 1,5 puntu baino gutxiago, eta praktikoa 7 puntutik 3,5 baino gutxiago), ohiko deialdian aurkeztu daiteke bakarrik gainditu ez duen zatia egiteko.

Ikasleek eskubidea izango dute azken ebaluazioaren bidez ebaluatutak izateko. Etengabeko ebaluazioari uko egitea: ikasleek 9 asteko epea izango dute, lauhilekoaren hasieratik zenbatzen hasita, ikasgaiaren ardura duten irakasleei etengabeko ebaluazioari uko egiten diotela idatziz aurkezteko.

2.- EBALUAZIO FINALA:

Etengabeko ebaluazioa jarraitu duen ikasle batek, ikasgaiaren zati bat gainditu gabe geratzekotan (teorikoa edo praktikoa), ohiko deialdian aurkeztu daiteke bakarrik gainditu ez duen zatia egiteko.

Ikasleak aukera izango du irakasgaiaren %100 ebaluatzeke modu honetan:

2.1. Balorazio PRAKTIKOA (notaren %70): Eskatzen du:

2.1.1.PRAKTIKA SOZIOMOTORRA (nota osoaren %20): klasean egindako Kirol joko-jolasetan ikasleek gaitasun sozomotor maila egokia erakutsi behar dute, beti ere estrategia motorrak zuhertasunez azaleratuz eta testuingurua errespetatuz: espazioa, jolaskideak, denbora eta objektuak.

2.1.2. FROGA PRAKTIKO PSIKOMOTORRA (nota osoaren %20): ikasleek, joko malabarren garapenean zentratuta, gaitasun psikomotor maila egokia erakutsiko dute.

2.1.3. IDATZITAKO AZTERKETA PRAKTIKOA (nota osoaren %30): ikasleek kirol joko-jolasen deskribapen literarioa, analisia eta ilustrazioak egiteko gaitasuna erakutsiko dute.

Praktika horietako balorazioa eguneratutako errubriketan oinarrituko dira, horiek e-gela plataforman argitaratuta.

2.2. Balorazio TEORIKOA (notaren %30):

2.2.1. Idatzitako azterketa, kirol joko-jolasen kultur esanahiaren analisia garatzeko.

Ikasleak bai zati praktikoa bai zati teorikoa gainditu behar du azken nota osatzeko.

- DEIALDIARI UKO EGITEA:
1. Deialdiari uko egiten dioten ikasleek "aurkezteke" kalifikazioa jasoko dute.
 2. Etengabeko ebaluazioaren kasuan, probaren pisua ikasgaiaren kalifikazioaren % 40 baino handiagoa bada, nahikoa izango da azken proba horretara ez aurkeztea, amaierako kalifikazioa "aurkeztu gabea" izateko. Aldiz, probaren pisua ikasgaiaren kalifikazioaren % 40 edo txikiagoa bada, ikasleek deialdiari uko egin ahal izango diote, irakasgaiaren irakaskuntza-aldia amaitu baino hilabete lehenago gutxienez. Uko egite hori idatziz egin behar da, posta elektronikoz, irakasgaiaz arduratzen diren irakasleen aurrean.
 3. Azken ebaluazioaren kasuan, azterketen data ofizialean ezarritako probara aurkezten ez bada, automatikoki uko egingo zaio dagokion deialdiari.

Ebaluazioa eta ikasketen ohiko printzipio etikoen urratzea eginez gero, kalifikazioa ZERO izango da (SUSPENTSOA)

Ebaluazioa ez presentziala egin beharko balitz, antolaketa-egokitzapenak egingo dira 2023-2024 Irakaskuntzarako Egokitzapen Planaren gomendioei jarraituz eta dagokien egutegi eta egitarauan.

EZOHICO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

3. Ebaluazio jarraia jarraitu duen ikasle batek, ohiko deialdiaren ondoren, ikasgaiaren zati bat gainditu gabe geratzekotan (teorikoa edo praktikoa),EZ OHIKO deialdian aurkeztu daiteke gainditu ez duen zatia bakarrik egiteko.

Ikasleak aukera izango du irakasgaiaren %100 ebaluatzeko modu honetan:

- 3.1. Balorazio PRAKTIKOA (notaren %70): Eskatzen du:
 - 3.1.1.PRAKTIKA SOZIOMOTORRA (nota osoaren %20): klasean egindako Kirol joko-jolasetan ikasleek gaitasun soziomotor maila egokia erakutsi behar dute, beti ere estrategia motorrak zuhertasunez azaleratuz eta testuingurua errespetatuz: espazioa, jolaskideak, denbora eta objektuak.
 - 3.1.2. FROGA PRAKTIKO PSIKOMOTORRA (nota osoaren %20): ikasleek, joko malabarren garapenean zentratuta, gaitasun psikomotor maila egokia erakutsiko dute.
 - 3.1.3. IDATZITAKO AZTERKETA PRAKTIKOA (nota osoaren %30): ikasleek kirol joko-jolasen deskribapen literarioa, analisia eta ilustrazioak egiteko gaitasuna erakutsiko dute.

Praktika horietako balorazioa eguneratutako errubriketan oinarrituko dira, horiek e-gela plataforman argitaratuta.

- 3.2. Balorazio TEORIKOA (notaren %30):
 - 3.2.1. Idatzitako azterketa, kirol joko-jolasen kultur esanahiaren analisia garatzeko.

Ikasleak bai zati praktikoa bai zati teorikoa gainditu behar du azken nota osatzeko.

Deialdi batean ikaslea aurkezten ez bada, deialdi horri uko egiten diola ulertzen da eta horren ondorioz ez da deialdien zenbaketan kontuan hartuko, eta Ez Aurkeztuta agertuko da kalifikazioetan.

Ebaluazioa eta ikasketen ohiko printzipio etikoen urratzea eginez gero, kalifikazioa ZERO izango da (SUSPENTSOA).

Ebaluazioa ez presentziala egin beharko balitz, antolaketa-egokitzapenak egingo dira 2023-2024 Irakaskuntzarako Egokitzapen Planaren gomendioei jarraituz eta dagokien egutegi eta egitarauan.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

CEMÉA. Groupe national de recherche "Jeux et Pratiques Ludiques" (1999).- Jeux sportifs. 24 jeux sans frontières.Paris: Ceméa Publications.

CEMÉA. Groupe national de recherche "Jeux et Pratiques Ludiques"(2010).- Jeux du monde, d'ici et d'ailleurs.Paris: Ceméa Publications.

CEMÉA. Groupe national de recherche "Jeux et Pratiques Ludiques"(2015).- Jeux d'autrefois, jeux d'avenir.Paris: Ceméa Publications.

Etniker (1993). - Juegos infantiles en Vasconia. Bilbao: Etniker, Eusko Jaurilaritza, Nafarroako Gobernua.

Etxebeste, J. (2001). Les jeux sportifs, éléments de la socialisation traditionnelle des enfants du Pays Basque. Thesis (Ph. D.) -Université Paris V - Rene Descartes-Sorbonne.

Etxebeste, J. y Urdangarin, C. (2004). "Reflexiones sobre la Educación Física de hoy a la luz de las características de la cultura tradicional vasca". En: La ciencia de la acción motriz. Lleida: U.Lleida Editorial.

Etxebeste, J. y Urdangarin, C. (2005). Euskal jokoa eta jolasa. Transmittiendo una herencia vasca a partir del juego. Vitoria-Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.

Etxebeste, J. (2002). Jokoa y jolasa; dos conceptos vascos para el juego. En: Llibre de les actes del cinque congrés de

ciències de l'esport, l'educació física i la recreació. Lleida: INEFC Lleida, pp.267.-276.
Parlebas, P. (2001). Juegos, deporte y sociedad. Léxico de praxiología motriz. Barcelona: Paidotribo.
Parlebas, P. (1988). Elementos de sociología del deporte. Málaga: Junta de Andalucía: Universidad Internacional Deportiva.

Gehiago sakontzeko bibliografia

Caro Baroja, J.(1971). Los vascos. Madrid : Itsmo.
During, B.(1981). La crisis de las pedagogías corporales. Malaga : Unisport, Junta de Andalucía.
Hall. E.T.(1978). La dimension cachée. Paris : Editions du Seuil.
Lagardera, F., & Lavega, P. (2003). Introducción a la praxiología motriz. Barcelona: Paidotribo
Mead, M.(2001). Growing up in New Guinea. Perennial Classics : New York.
Zulaika, J.(1990).Ehiztariaren erotika. Donostia : Erein.

Aldizkariak

Interneteko helbide interesgarriak

OHARRAK